

'PARQUE POLO'
VOLKSWAGEN NAFARROA-NAFARROAKO KUTXA
FUNDAZIOA

1.- KOKAPENA

'Parque Polo', Volkswagen Nafarroak Landabengo Industrialdean dauzkan eremuetan kokaturik dago. Beharrezkoa den eta gizarteak tinko eskatzen duen instalazioa da.

Instalazioak trafiko egoera guztiak bizi ahal izateko prestatu daude, ia-ia erreala den eremu batean.

2.- HELBURUAK

Ikasleek komunikazio bideak leku publikoak direla eta bere erabilpen egokia guztien ardura eta zeregina dela ulertzea.

Parte-hartzaile bakoitzak, bide publikoaren erabiltzaile den heinean, jarrera egokia izaten ikastea. Horretarako, zirkulazio arauak erakustez gain mekanika irizpideak ere ikasiko dituzte.

Ezagutza hauek guztiak praktikaren bidez lortzea da helburua, hau da, modu dibertigarri batean ikastea.

3. EZAUGARRI OROKORRAK

3.1 'ParquePolo'-k, bere ateak 2016ko irailaren 6an irekiko ditu eta 2017ko ekainaren 30ean itxi.

3.2 Ikastetxe guztiek eskaerak egin ahal izango dituzte, beti ere Haur Hezkuntzako 2. zikloko 3. mailarentzat, Lehen Hezkuntzako maila guztientzat eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailentzat (5 eta 15 urte bitartekoentzat).

3.3 Ikastetxe bakoitzak nahi bezain beste ikasle talderentzat egin ditzake eskaerak. Talde bakoitzeko gehieneko ikasleak 55 izanik, salbuespen bakar batekin: DBHko taldeak, gehieneko, 30 ikasleentzat izango dira (ziklomotorraren erabilpena dela eta). Ikastetxe bakoitzaren salbuespen beharretara egokitzen saiatuko gara.

3.4 Ikasle bakoitzak ordaindu beharrekoa 3 euro da (irakasleentzat dohainik).

3.4.1 Salneurri honek lan materiala, jarduerak eta begiraleen arreta pedagogikoa biltzen ditu. Ikastetxeek bere kabuz antolatuko dute ikasleen garraioa (garraioeskaintza atxikitzen dugu).

3.5 Instalazioetan bazkaltzera gelditzeko aukera dago, janaria norberak ekarri behar duelarik. **Parkean gehienez, 15:00ak arte egon daiteke.**

3.6 Parque Polora egiten den bisita bi urtean behin egitea gomendatzen dugu. Ziklo bakoitzean lantzen diren edukiak antzekoak baitira (LHko 2. eta 3. zikloak eta DBHko lehenengo zikloa). Era berean, DBHko 3. mailako ikasleentzako, bisita ikasturte bukaeran egitea gomendatzen dugu, garrantzitsua baita programa hobeto barneratzeko psikomotrizitatea eta heldutasuna garatuagoa izatea.

3.7 Ikasleak arropa erosoarekin (txandala eta zapatilak) etortzea gomendatzen dugu eta eguraldiak hala eskatzen duenean zira eta eskularruak.

3.8 Aktibitate osoa gazteleraz zein euskaraz egiteko aukeraz gain, oinezkoen aktibitatean egiten diren galderak beste hizkuntzetan ere (ingeleza, frantsesa eta alemaniera) egiteko aukera dago, beti ere eskaera egiteko momentu beretik zehaztuta.

4.- HEZKUNTZA PROIEKTUA

□ **Haur Hezkuntzako 2. zikloko 3. maila eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloa**

(Haur Hezkuntzako etapa osora egokitu daiteke)

Hezkuntza Proiektu honekin parte-hartzaile bakoitza bide publikoan modu egoki batean aritzeko lan egiten da. Bai lagunduriko oinezkoa edo bidaiari bezala, garraio publiko edo pribatuan, zein kart edo bizikletaren gidari bezala (2 edo 4 gurpildunak).

Programa batek hiru orduko iraupena dauka. Beti ere, gure instalazioetan gehienez arratsaldeko 15:00ak arte egon daiteke.

Lehendabiziko zatiak eduki teorikoak biltzen ditu. Hauek powerpoint aurkezpen baten bidez azaltzen dira ikasgelan, multimedia kainoi bat erabiliz, haurrei trafikoarekin erlazionaturiko kontzeptu ezberdinak erakutsiz.

Bigarren zatian aurretik ikasitakoa praktikan jartzen da aktibitate ezberdinen bidez. Lehen aipatutako edukiak eta Nafarroako Dekretuan azaltzen diren eremuak (Identitate eta autonomia, Ingurune fisiko eta soziala) lantzea da helburua.

Eguna ikastetxetik Parque Polorako bidaiarekin hasiko da. Bidean irakasleek aprobetxatu dezakete bidaiariaren jarrerak lantzekogarraio publikoen erabiltzailegisa eta bidean agertzen diren egoera ezberdinak indartzeko.

Parkera heltzen direnean Iruñeko Udaltzainen Bide Heziketako Taldea (Iruñeko Ikastetxeak) edo Nafarroako Foruzaingoaren Bide Heziketako Taldea (Nafarroako beste ikastetxeak), hiru begirale eta Parque Poloko Koordinatzaileak harrera egingo diete ikasleei. Aldi berean, instalazioak erakutsiko dizkiete eta egunean zehar egin behar dutena azalduko diete. Programa hiru zatitan banatuta dago, eta bakoitzak helburu argi eta apal sorta bat bilatzen ditu. Hauek guztiek eduki espezifikoko multzo bat daramate atzean, ikaslearen formazioa osatzeko asmoz.

Ondoren, gelan aktibitate didaktikoa hasiko da teoriaren garapenarekin,

ikusentzunezko baliabideez lagundua. MapfreInstitutoak egindako powerpoint proiektzio baten bidez agente batek azalpenak emango ditu.

Atsedeen baten ondoren eta hamaiketakoan jan eta gero, ikasleak atal praktikora pasako dira. Aktibitatea leku estali batean garatzen da bere osotasunean, txoko bat izan ezik.

Tailer ezberdinen bidez, txoko edo eremu ezberdinetan kokatuak, haurrak bost taldetan banatzen dira (gorria, horia, urdina, berdea eta txuria) eta praktikan jartzen dira aurretik ikasitako ezagutzak.

Txoko bakoitza hasi aurretik begiraleak eta haurrak beraien izena esanez aurkeztuko dira, harremana estuagoa izan dadin.

Hauek dira bost txoko edo eremuak:

DENBORA	TXOKO 1	TXOKO 2	TXOKO 3	TXOKO 4	TXOKO 5
	Bi plazako karta-Bidaia	Gidariak	Seinaleak	Zebra bidea-Auto partikularra	Forma eta koloreak Maketa
20 Minutu	1	2	3	4	5
20 Minutu	5	1	2	3	4
20 Minutu	4	5	1	2	3
20 Minutu	3	4	5	1	2
20 Minutu	2	3	4	5	1

* **GIDARIEN TXOKOA**. Haurrak zirkuitu batetik ibiliko dira beraien adinera egokitutako auto eta bizikletetan. Ikasleak gidariak izango dira norabide bakarreko zirkuitu batetik (oraindik ez baitute ongi bereizten ezker eta eskuin), semaforo eta oinarritzko seinale batzuekin, zig-zag txiki batekin eta abar.

Bi ibilbide ezberdin daude: bat oso erreza Haur Hezkuntzako ikasleentzat, eta beste bat, konplexuagoa, bihurgune eta aldapekin, Lehen Hezkuntzako haurrentzat.

* **KART-EAN BIDAIARI TXOKOA.** Bi pertsonentzako kart batean Bide Hezkuntzako zirkuitutik ibilbidea egingo dute. **Ikasleak txandaka, irakasle baten laguntzaz parkean dauzkagun bi kart-etan ibiltzen joango dira (bi irakasle behar dira gutxienez),** modu honetan gidaria irakaslea izango da eta ikaslea bidaiaria. Taldeko beste ikasleak, begirale baten laguntzaz, haur parke batera joango dira eta bertan itxoingo dute, jolasten, bere txanda heldu arte. Jolastokira bideanoinezkoak bezala joan behar dute arau guztiak errespetatuz.

* **BIDAIARI ETA OINEZKOEN TXOKOA.** Leku zehatz batean zebra bide bat jarri da paraleloki aparkatutako bi autoen artean.

Ikastetxeen irteeretan izaten diren istripuak direla eta, ateetan bigarren ilaran aparkatzen diren autoek ez dutelako ongi ikusten uzten, aparkatutako bi autoen artean nola gurutzatu irakasten zaie.

Aktibitate honetan ere autoan eserita nola joan behar duten, ze jarrera izan behar duten (ez molestatu, gidaria errespetatu, etab.) eta hartu behar dituzten segurtasun neurriak (bere adinerako egokia den aulkian eseri, gerrikoa jarri, etab.) landuko ditugu.

* **FORMA ETA KOLOREEN TXOKOA (HAUR HEZKUNTZA).** Jolas baten bidez lurrian jarritako fitxa handi batzuen gainean, trafikoarekin edo beste edozein arloekin erlazionatuak, ikasleek forma eta kolore ezberdinetako fitxa txikiagoak jarri behar dituzte. Bertan agertzen diren irudiak aurretik powerpoint bidezko aurkezpenean landutakoak dira. Modu honetan landutako kontzeptu eta edukiak indartu ditzakegu (irudia, forma, kolorea...). Txoko hau Haur Hezkuntzako ikasleek soilik egingo dute.

* **MAKETEN TXOKOA (LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOA).** Hiri baten maketa eraikiko dute bere etxe, seinale, oinezko, ibilgailu eta semaforoekin. Ikasleek moztu, tolestu eta itsatsi beharko dituzte maketaren zati ezberdinak. Eguna bukatu ondoren maketa ikastetxera eramango dute bertan erabili ahal izateko. Adin honetan irudi planotik bolumenera pasatzea kostatu egiten zaie, horregatik, eredu gisa, osorik

eraikitako maketa bat egongo da, ikasleei beraien maketaren eraikuntzan laguntzeko.

Maketa bakarrik Lehen Hezkuntzako ikasleek egingo dute, guraize eta itsaskinarekin aritzeko oinarrizko trebezia beharrezkoa baita.

* **SEINALEEN TXOKOA.** Plastilina, izozki makilak eta kartulinarekin ikasleek beraiek aukeratutako seinalea egingo dute. Lehenik, egingo duten seinalearen forma (borobila edo hirukia) aukeratu eta ondoren seinalearen azpiko kolorea erabakiko dute. Kartulina zati bat emango zaie beraiek aukeratutako formarekin. Moztu ondoren plastilinarekin estali (motrizitate fina eta lodia landuz) eta pixkanaka-pixkanaka etxera eramango duten seinalea eraikiko dute.

Eguna bukatzeko, jardunaldi eta aktibitatearen ebaluazioa egingo da agente, koordinatzaile, begirale eta ikastetxeko irakasleekin batera. Honekin, Parque Polora bisita bukatutzat eman eta autobusez ikastetxera itzuliko dira ikasle-irakasleak.

□ **Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloak DBH-ko 3. maila arte**

Programa aurrera eramán ahal izateko Bide Hezkuntzako Iruñeko Udaltzainen (Iruñeko ikastetxeak) edo Nafarroako Foruzaingoen (beste ikastetxeak) Taldeko bi agenteren, parkeko koordinatzailearen eta Bide Hezkuntzako hiru begiraleren laguntza egongo da.

Aktibitatea goiz batean zehar burutzen da, gutxi gora behera lau orduko iraupenarekin. Beti ere, ikastetxearen ordutegira moldatzen saiatzen gara.

Eguna ikastetxetik parkera autobusean egiten den ibilbidearekin hasiko da.

Bidean zehar ikasleek bidaiariaren jarrera eta egoera ezberdinak landu beharko dituzte. Bidaiari bezala arauak errespetatu beharko dituzte: autobusera ilaran igo, ez bultzatu, ordena mantendu, bere eserleketan modu egokian eseri eta abar.

Parkera heltzen direnean Iruñeko Udaltzain Taldea (Iruñeko Ikastetxeak) edo Nafarroako Foruzaingo Taldea (Nafarroako beste ikastetxeak), hiru begirale eta Polo Parkeko Koordinatzaileak harrera egingo diete ikasleei. Aldi berean, instalazioak erakutsiko dizkiete eta egunean zehar egin behar dutena azalduko diete.

Talde erdiari argazki bat ateratzen zaion bitartean, geroago behar duten karnet bat egiteko, beste erdiak garapen teorikoa egingo du bide hezkuntzako zirkuitotik. Ibilbidea agente batekin egingo dute eta bertan seinale ezberdinen azalpenak jasoko dituzte, seinalizazio jarduerak egingo dituzte, ibilgailuen erabilera landuko dute... gero gidari eta oinezko moduan hau guztia praktikan jartzeko. Honen barnean ere Parque Polo etxolan bisita gidatu labur bat egiten dute, bertan energia berriztagarrien onurak ezagutzeko helburuarekin. Honetarako eduki ezberdinak dituzten bi programa daude, bata LHko 2. ziklorako eta bestea LHko 3. ziklorako.

Segituan, gelan errepasso teorikoa egingo dute ikusentzunezko baliabideez (ordenagailua, bideoa, kanioi multimedia, ...) lagunduta. Zati hau agente batek azalduko du.

Hamaiketakoan jan eta 15-20 minutuko atsedena ostean, ikasleak hiru taldetan banatuko ditugu: urdina, horia eta gorria (talde bakoitzari kolore ezberdineko petoak emango zaizkio). Goizean zehar hiru aktibitate edo ekintza egingo dituzte txandakatzen. Hobe ulertzeko, talde baten dinamika azalduko dugu:

Tailerrarekin hasten den taldeak bere adinaren arabera eduki ezberdineko tailerra garatuko du. Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleek **Bizikleta Tailerra**, hirugarren ziklokoek **Botikin eta Istripu Tailerra** eta bigarren hezkuntzako ikasleek gure mugikortasunean eta are zehatzago, ibilgailuen erabilerarekin harreman zuzena duen **Simulazio** batean parte hartu ahalko dute, honetan, alkohola edaterakoan pairatzen den zentzumenen galera nozitu ahalko dutelarik.

Lehen Hezkuntzako 2. zikloa: Lehenik eta behin, azpitaldeak egingo ditugu jarduera honetako parte-hartzaileekin, modu honetan lidergo edo bazterkeria egoerak ekidin asmoz. Ondoren, bizikleta tailerraren bidez, bizikletako gurpila nola muntatu eta desmuntatu ikasiko dute, horretarako gymkana bateginez. Parkean zehar etxoletan materiala hartu eta amaieran, ikasgelan, gurpila muntatu beharko dute adierazpen batzuk jarraituz.

Lehen Hezkuntzako 3. zikloa eta DBHko lehen maila: botikin eta istripu tailerlean etxeko botikinak ongi erabiltzen ikasiko dute. Jarduera honetan ere, azpitaldeak egingo ditugu parte-hartzaileekin lidergo edo bazterkeria egoerak ekidin asmoz. Etxe guztietan izaten dugu botikin txiki bat baina gehienetan haurrek ez dakite ongi erabiltzen eta gauza bakoitza zertarako den. Hau burutzeko gymkana bat burutu beharko dute; bertan pista eta material ezberdinak jaso beharko dituzte parkean zehar (oinezkoen arauei jarraituz) ondoren, ikasgelan, aurretik lortutakoarekin botikina osatuko dute.

DBHko2. eta 3. maila: Azpitaldeak egingo ditugu jarduera honetako parte-hartzaileekin, modu honetan lidergo edo bazterkeria egoerak ekidin asmoz. Ondoren alkohola edaterakoan pairatzen den zentzumenen galera egiaztatu ahalko dute mozkorraldia simulatzen duten betaurreko batzuekin. Hauekin modu argi, jolasgarri baina errealista batez nabarituko dituzte alkoholak ikusmenarengan zein gidaritzan dauzkan benetako eraginak.

Betaurrekoak odolean 0.8 eta 1.2 g/l bitarteko alkohol tasa bezainbestekoak dira, gutxi gora behera 6-8 kopen kontsumoa, eta argi agertzen dute alkohola edatearen ondorioz ikusmenean ematen diren aldaketak, hala nola: distantzien hautemate okerra eta zehaztugabea, erreakzio-denboraren handitzea, ikusmen eremuaren txikiagotzea, eta abar.

Jarduera honen helburua, ikasleak gidatzerako orduan alkohola edateak dakartzan arriskuekin jabetzea da, beti ere modu jolasgarri eta didaktiko baten bidez kontzientzia hartuz. Horretarako lerro zuzen baten gainetik ibili, giltzarrapo bat ireki, arkatzak bote batean sartu eta horien gisako oinarritzko ariketaz baliatuz.

Aktibitateak bide hezkuntzako zirkuituan jarraituko du. Bertan ikasle bakoitzak parkean dauden etxola guztietatik ibilbide bat egingo du oinezkoen arauak betetzen. Etxola bakoitzean ordenagailu bat dago, honek, aurkitu behar duten hurrengo etxola izena esan baino lehenago bi galderei erantzun behar diete ikasleek. Ondoren mapa baten laguntzaz esandako etxola aurkitu behar dute. Adinaren arabera egokitutako aktibitatea da.

Ondoren, gidarien aktibitatea egongo dute. Bide hezkuntzako zirkuitutik kart, bizikleta eta ziklomotorrekin (DBH) ibilbidea egingo dute. Arreta berezia jarri beharko diote seinaleei eta oinezkoiei.

Lehen Hezkuntzako 4.mailatik aurrera ziklomotor edo motozikleta simulagailua erabili dezakete: Simulagailu sofistikatu honen helburua, gidatzerako orduan segurtasuna sustatzea da. Horretarako gidari berriei 'errealitate birtualaren' bitartez bizi arazirik hirigune zein herri guneetan eman daitezkeen gidatze baldintzak.

Gidatze Entrenatzaile honek, motozikleta bat gidatzeko oinarrizkoak diren maniobrak ikasten laguntzen du modu seguru eta jolasgarriaz, aldi berean konfiantza eta trafiko barruko gidaritzaz ezagutza lortzen delarik.

Gidatze Entrenatzailea hasiberriei motozikleta bat modu egokian erabiltzeko berriaz diseinatua izan da, horretarako motozikleta baten eskutokiarekin eta arrisku higikariez jositako antzetzokiekin hornitua izan delarik.

Lehen Hezkuntzako 2. zikloa: talde erdiak bizikleta hartzen duen bitartean, beste erdia kart-etan gidaria izango da. Bizikletak hiri txikian gidatuko dituzte eta kart-ak, gehienentzat lehendabiziko aldia denez motorreko ibilgailu bat hartzen dutela, zirkuitu berezi batetik erabiliko dituzte. Erabiliko duten pista zabala da eta babes gorpilak ditu alboetan. Lehendabiziko buelta eman ondoren zirkuituak dituen zailtasunei aurre egin beharko diete: bide estutzeak, zig-zag-akonoekin... eta stop seinalea (aholkua: lehen hezkuntzako ikasleentzat egokiagoa da ikasturte bukaeran etortzea motrizitatearen garapena garrantzitsua delako jarduera burutzeko).

Kart-en erabileraren azalpena hasieran talde osoari egiten zaio eta ondoren, gidatzera atera baino lehenago, banan-banan. Eskuineko oinarekin pedal berdea (azeleradorea) eta gorria (frenoa) erabiliko dituzte, ezkerreko oina ez da erabiltzen ez delarik. Segurtasun distantzia mantendu behar dutela eta aurreratzea debekaturik dagoela oroitaraziko zaie.

Lehen Hezkuntzako 3. Zikloa eta DBH 1. maila: aurreko ikasturteetan Parkean egon etakart-ajada erabili dutenez, hauen erabilera hiri txikian egingo da, oinezkoak eta bizikletak dauden lekuan. Zirkuituan, edozein herri edo hirian eman ahal diren

egoerak ematea nahi da, ikasleek horiei aurre egin eta horietatik ikasi ahal izateko. Gidariak arauak eta seinaleak errespetatu beharko dituzte, oinezkoek pasatzen utzi beharko diete, agenteen seinaleei kasu egin...

DBH 2.-3. maila:Kart eta bizikletekin ibilbidea oinezkoak dauden zirkuituan egiten da, baina ziklomotorraren gidatzea beste pista batetik egingo da. Gidari bakoitzak kaskoa, egokiak diren eskularruak eta protekzioak jartzen ikasiko du. Dena ongi jantzi ondoren gidatzeko arau batzuk emango zaizkie eta azeleratzeko, ateratzeko... zenbait aktibitate praktiko egingo dituzte.

Ikasle hauek egiten dituzten aktibitateak ibilgailuekin duten lehen kontaktua suposatzen du, horregatik errazak diren praktikak izango dira beren buruengankonfidantzahartu ahal izateko.

Agente, begirale eta irakasleek ikasleen jarrera desegokiak behatu eta zuzenduko dituzte praktikan zehar.Hartara, irakasleak instalazioan egon beharko dute jardunaldi osoan zehar.

Eguna bukatzeko, jardunaldi eta aktibitatearen ebaluazioa egingo da irakasle, begirale eta poliziaekin. Behin hau eginik bertako jarduera indartzeko materiala banatuko da. Honekin, Parke Polora bisita bukatutzat eman eta autobusez ikastetxera itzuliko dira ikasle-irakasleak.

5.- METODOLOGIA

Bide Hezkuntzaren trataeran oso garrantzitsua da ikasleen garapen erritmoa errespetatzea, erantzun askea eta pertsonala bilatuz. Horretarako modu motibagarri eta dinamiko baten bidez lan egiten da, jarrerak indartuz eta baloreak garatuz.

Bide Hezkuntzako Haur Parkean aukerak ematen ditugu ezagutza berriak praktikan jarri eta ikasleak ikasitakoaren erabilera zein interesa egiaztatzeko. Egindakoaren hausnarketa pertsonala eta ondorioak ateratzea bultzatuko da.

Ikasitakoa funtzionala da bere eguneroko bizitzan, modu honetan, egoera errealetan ikasleak bereganatutako ezagutza horiek erabili ahalko dituelarik.

6.- EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Parkea ikasturte osoan zehar astelehenetik ostiralera zabalik egongo da, aurretik aipatutako datetan.

Ikustaldiaren luzera aukeratutako programaren arabera izango da, 3 ordutakoa lehenengo programa aukeratzen dutenentzat eta gutxienez lau ordutakoa bigarrenekoentzat.

⇒ **Haur Hezkuntzako 2. zikloko 3. maila eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloa (5-7 urte bitarte).**

* Taldearen harrera: 9:00- 10:00etan.

* Taldeei agurra: 12:30- 15:00etan.

⇒ **Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloak eta Bigarren Hezkuntzako 1. zikloa**

* Taldearen harrera: 9:00- 10:00etan.

* Taldeei agurra: 13:30- 14:30etan.

Ordutegi hauetara moldatu ezin daitezkeen ikastetxeekin zuzenean hitz egingo da.

7.- ARGIBIDEAK ETA AZALPENAK

7.1 Eskaerak egiteko telefono zenbaki hauetara deitu behar da: 948.424042 edo 686.937550, edo honako posta elektronikoaren bidez parquepolo@parquepolo.com edo administración@parquepolo.com. Fundazioak onartuak zaudetela esan arte izen-ematea ez da baieztatua izango.

7.2 Bisita eskaeraren baietza jaso ondoren, Parkeko langileria ikastetxearekin harremanetan jarriko da, etorri baino 15 egun lehenago bisitaren antolakuntzaren azkeneko zehaztapenak finkatzeko.

7.3 Ordainketa ikastetxean faktura jasotzean egingo da. Ordainketa egiteko, ikastetxetik helarazitako kontu korranteetako entitatei, Parque Polok, dirua bidaltzeko agindua emango die. Zenbatekoa, parkera etorritako ikasle kopuruaren arabera izango da, modu honetan diru bueltatzeak egitea ekidinez. Hortaz, ikastetxe bakoitzak inskripzioa egiterakoan kontu korrantea eman edo ordainketa egina izan beharko du 'La Caixa'-kontu korrantean.

7.4 Edozein galdera egiteko edo informazio gehiago eskatzeko 9484240 42 edo 686 937550 telefono zenbakietara dei daiteke.

7.5 Bisita egin ahal izateko beharrezkoa da **gutxienez 2 irakasle egotea 25 ikasleko**(5-7 urte bitartekoak direnean).

ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDUA

ARAUTEGIA

1.- Ikastaldearen irakasle tutoreek une oro ikasleen ardura hartu beharko dute eta haiek izanen dira euren ikasleen portaeraren, zaintzaren eta segurtasunaren arduradun BAKARRAK.

2.- Jardueretan zehar irakasle tutoreek behar den laguntza emanen diete begiralei jarduerak behar bezala gara daitezen.

3.- PARQUE POLOkoberezko jardueren aurrez ikusitako ordutegietan izan ezik, begiraleek ez dute ikasleekin inolako betebeharririk eta ardurarik izanen.

4.-Begiraleek une oro errespetatuko dituzte ikastaldeen barne funtzionamendurako arauak (diziplina, errespetua...) zein ikasleek atsedean hartzeko dituzten ordutegiak eta ikastaldearen bestelako antolaketa-moduak (esate baterako, ikasleek eduki dezaketen dirua, jantokiko ordena eta abar). Hori dela-eta, instalazioaren kudeatzaileek uste dute begiraleekin edo koordinatzailearekin zuzenean komunikatzeko aukera eduki behar dutela jardunaldiaren garapen egokia erraztu asmoz.

5.- Kontuan izan behardugu PARQUE POLOko jardueraren helburunagusietakobattrafikojokabideseguruaksustatzea dela. Ikasleren batekistripu baten ondorioz modu egokian gidatu ahal izateko beharrezkoa den mugimenduren bat mugaturik badu (hausturak, bendajeak...), edo hezkuntza premia bereziak baldin baditu, ikastetxeak alde zurretik eta behar den denboraz horren berri eman beharko du PARQUE POLOko langileek ikasleari behar den laguntza eman eta bereguraso, tutore edo irakasleek hortarako baimena eta onespena adierazteko.

IZEN EMATE ORRIA
Polo Parkea

Ikastetxea:	
Helbidea:	Posta Kodea:
Herria :	Telefonoa:
Ikasturtea:	Ikasle kopurua:
Irakasle, tutore edo laguntzaileak:	
1	
2	
3	
Eskatutako datak: (Gogokoena lehenengo) 1.	
2.	
Kontu korrante zenbakia:	
Atal teorikoa: Erdaraz <input type="checkbox"/> Euskaraz <input type="checkbox"/>	
Instalazioan bazkaldu nahi duzue? Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>	
Parke Poloko araudia eta funtzionamendua onartzen ditut Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>	

..... Jaun Andereak,
Aipatutako ikastetxeko zuzendariak, ageri diren datuak BAIEZTATZEN ditu. Era berean, Eskola Kontseiluari honen berri emateaz, prozesuaren garapenean laguntzeaz eta ikasle taldea goiko aldean aipaturiko tutoreek lagunduta etorriko denaren konpromisoa hartzen du. Agiri hau sinaturik, Parke Polotik helarazi dioten araudia irakurri eta onartzen duela adierazten du.

Sinadura eta Ikastetxeko zigilua

2016/2017ko.....ren.....(e)an